

45. zb

otsaila

26

osteguna

ABE



Markel, Amaia, Javi eta Ander

www.amaraberi.org
amaraberrifer.abe@gmail.com

INAUTERIAK.



Ostiralean inauteriak izan ziren eta orain sariak eramango dituzte janjzi ederrenei, taldekoei, orijinalenari eta parodiari. Orijinalena: 1. rubick, 2. eskutitza eta 3. San Fermin. Ederrena: 1. rubick, 2 .Mario eta Luigi, eta 3. San Fermin. Taldekoa: 1. San Fermin, 2. oiloak eta 3. pijak. Parodiak: 1. San Fermin, 2. oiloak eta irakasleak eta 3. futbolariak.

La Bretxan obrak.

La Bretxan aldaketak egingo dituzte. Solairu baka-
rrekoa egingo
dute, eta atzeko
parteak kendu.
Plazan toki
gehio egongo
da.



editoriala

KAIXO GU MARKEL,
AMAIA , JAVI ETA AN-
DER GARA . ESPERO
DUGU GURE ABEA
ASKO GUSTATZEA ETA
ENTRETENIGARRIA
IZATEA.
AGUR!!!!!!



A u r k i b i d e a

- 1.- PORTADA: Inauteriak eta Bretxako obrak.
- 2.- INKESTA: nora eta norekin joango zinateke oporretan.
- 3.- SASKI NASKI: pertsonai misterioetsua.
- 4.- LUMAREN KILIMA: pertsonaia misterioetsua.
- 5.- GU ERE IDAZLE: ninja eta dardbader.
- 6.- ENTRETENIGARRIAK: gurutzegrama.
- 7.- pertsonaia misterioetsa.
- 8.- agurra!!!!

ERROTULAGAILU BAT GALDUTA

Atzo errotulagailu beltz aurkitu genuen. Talde gorriaren pertxeroen azpian zegoen. Norbaitena baldin bada joan dadila mateko gelara edo inglesko gelara eta eskatu.




Nora eta norekin joango zinen oporretara?

I
N
K
E
S
T
A




Lagunekin, eta
Karibera.



Lagunekin ,eta
Hawayera.



Lagunekin, eta
E.E.U.U ra.



Eunaterekin, eta
Brasilera.



Julen eta Amaia-
rekin
New Yorkera.



Ander, Amaia eta
Josebarekin
Hollywoodera.



Lagunekin eta
New Yorkera.



Mikel eta Leire-
rekin
New Yorkera.

Inkestaren emaitzak

Gehienek lagunekin joan nahi dute oporretara.
Eta New Yorkera.

PERTSONAIA MISTERIOTSUA

Nik deskribatuko dudan pertsonaia kirolaria da. Kirol hori baloiarekin jolasten da. Espainako selekzioan eta Liverpool taldean jolastendu. Bera Tolosan jaio zen baina orain Britania Handian bizi da. Ume bat dauka 5 urtekoa. Bere aitak ere Errealan jolasten zuen. Bere aita oso ospetsua zen eta bera ere ez da gutxiago, oso ezaguna baita. 20 urte baino gehiago ditu eta oso jatorra da. Nire futbolari-rik gustokoena bera da. 14 zenbakia dauka eta nahiko altua da. Oso tiro onak egiten ditu. Anai bat dauka Mikel izena duena eta horrek Errealan jolasten zuen iaz arte, baina hori ere Liverpool talde-
ra joan da aurten.



Zein da nire pertsonaia?



*Egilea: Ekain
Zapirain.*

LUMAREN KILIMA

PERTSONAIA MISTERIOTSUA

Nik deskribatuko dudan pertsonaia telebistan agertzen da eta ume bat da. Patinetean ibiltzea asko gustatzen zaio. 10 urte ditu eta bere arreba 8. Beraien bizi laguna Ned Flanders du izena. Bera oso bihurria da. Ile kontutan zera esango nuke, bere amak ilea oso luzea duela, aitak berriz bi ile dituela bakarrik eta berak oso ile punkia duela. Duen azalaren kolorea horia da eta herriko gehienek baita ere kolore bera dute. Bere pailasorik gogokoena Krasti da eta bera lagun gehienarena ere bai. Txakur bat du, marroi kolorekoa da eta bere ahizpak katu beltz bat du. Bere zuhaitzean txabola txiki bat du, guztiz berea dena.

Zein da? Aurrera!!!!!!

EGILEA:Julen Suarez.



GUERE IDAZLE



NINJA

Ninjak pertsonak dira. Azkarak dira. Borrokatzen dute batzuekin eta ezpata daukate.

EGILEA: Unai Vázquez



DAR BEIDER

Dar Beider pertsona bat da. Arropan botoiak ditu marraztuta. Borrokarako ezpata laser bat dauka.



EGILEA: Ohian Vicente.






abe hitza aurkitu portadakoak ez du balio

e
n
t
r
e
t
e
n
i
g
a
r
r
i
a
k

GURUTZEGRAMA



Goitik behera:

a-Magia egiten duen pertsona bat.

b-Erleak ematen diguten elikagaia

Ezkerretik eskubira:

1-behiak jaten egoten den lursorua.

2-Txinatarrek erabiltzen duena jateko

3-Terrorista erakundea. 21 garren hizkia.

4-Gaizki jaten duen pertsona.

5-Gu ibiltzen garen tokitik.

6-Fideoekin jaten isurkia bigarren zenbakia.

7-Irakurtzen ari zaren aldizkariaren izena.

PERTSONAIA MISTERIOTSUA

Nik deskribatuko dudan pertsonaia kirolaria da, pilotarekin jolasten da kirol hori . Nire pilotaririk gustokoena da, Pablo Berasaluzerekin batera. Oso ona da eta orain jolasten ari den txapelketa eskuko mina jarri zaio eta ez du jolastu, bere ordeaz Juan Mtz de Eulatek jolastu du eta 5.ak gelditu dira, beraz ez dira sailkatu eta atzelari postuan jokatzeko du. 1,86 metro neurtzen du. Leitzarra da Oinatz Bengoetxea bezala. Ile beltza eta lisoa du, beti motz motz eginda darama. Oso mardula denez gogoz eta indartsu ematen dio pilotari. Oso altua da eta 81 kilo pisatzen ditu.



Euskeraz ederki hitz egiten du ia leitzar guztiak bezala.

Zein da nire pertsonaia?

Aguuurrr!!!

